

Arantzazun 500 urte

Arantzazun 1501ekoa dugu Lehenengo Ordenako fraide frantziskotarren estrainako albistea: jada hemen omen zeuden urte hartan, eta lehentxeagotik egon ere. Geroztik, bertan egon dira, halabeharrezko irtenaldiren bat salbu (1510-1514, 1834-1878).

Andra Mariaren Ermita edo elizatxo hartu zuten eskuetan, eta bertara heldu ohi ziren erromesen ardura. Egindako lanari esker Ermita zena Santutegi bihurtu zen laster, eta, ondorioz, eraikin handiak jaso ziren Arantzazun, zetozen bidari ugarietara eta haziz joan zen Fraidearteari egoitza eta erosotasuna eskaintzeko.

Horrela, ba, Euskal Herri osotik eta erbestetik ere etorritako erromesek eta bertako fraideek eman diote Santutegiari bere funtsa, gure egunak arte, Andra Mariaren Euskal Herriko Santutegi behinena edo izateraino.

Arantzazu honek bere ezaugarriak ditu, historian eta gaur: Santutegia da, Mariarena da, frantziskotarrak landu dute bertako erlijiotasuna eta Euskal Herrian lekutua dago.

1. Santutegia: "leku sakratua", erromesen topalekua

Erljioen historia begiratzen badugu ia beti bakoitzarenean zenbait "leku sakratu" aurkituko ditugu: erlijiotasuna lekutze hau erlijio handi guztietan gertatu da. Juduek Jerusalemgo tenplua zuten leku hori, eta bertara deituak zeuden israeldar guztiak. Hinduismoan bezala Budismoan, edo Islam-en, urtero milioika sinestun inguratzen da beren Santutegietara, Indian, Txinan, Japonian edo mundu islamiakoan. Azken hauentzat, Meka-rako Erromesaldia fededunaren betebeharrak bat da, gainera.

Kristautasunak ere bere Santutegiak sortu eta izan ditu: Lur Santuetan, Erroman, Santiagon. IV. Mendetik aurrera erlijiotasun herritarrek gero eta maiteagoak izan zituen Santutegiak, Erdi Aroan beren loraldirik handiena ezagutzera (XI-XIII. mendeetan). Guztiok dugu gogoan Santiago-Bidea, erlijiotasuna ez ezik gizartea, kultura eta ekonomia ere sustatu zituen bidea.

Kristautasunak ontzat eman zituen, ba, bere "leku sakratuak" eta, zerbait kostata izan arren, hauen artean Santutegiak, fededunak bere bizipen erlijiosoa berorietan barneagotik goza zezan. Ez da hau, bere orokorrean, Kristautasunaren deus originala; aitzitik, badirudi *homo religiosus* unibertsalaren ohizko adierazpidea dela esan daiteke, erlijioen fenomenologiak erakutsi duenaren arabera. Bila dabilen "misteriora" edo trazezientziara inguratzeko tokitzat ditu gizakiak horrelako "lekuak".

Baina Santutegia ez da lekutasun horretan agortzen. "Misterioaren" topalekua izaki, Santutegia –horrekin batera– herritar erromes sinestunen biltokia da, bertara datoz inguru hurbil edo urrunagoko erromes-bideak. Santutegiaren esanahia ezin da ulertu bigarren osagai hau gabe, hau da, peregrinazio edo erromesik gabe. Eliza edo ermita izatetik santutegira dagoen aldea, hortxe datza, erromesen hel-

puntu izate horretan. Historialariak ezaugarri honekin definitu dituen santutegiak, orain azkenik Eliza katolikoaren Kodeak ere berdin definitu ditu.

Horrekin, esanda dago herritarren borondatea eta berariazko burubidea direla santutegiak sortzen dituztenak, erromes ibiltaririk ez dagoen tokian santutegirik ere ez dagoelako. Herri hautatu bat eta herri hautatzailea behar da ermita galdua santutegi bilaka dadin.

Ehundaka eta ehundaka eliza eta ermita daude Euskal Herrian, eta horien artean gutxi batzuk bakarrik gertatu dira, azkenean, santutegi. Laburki esan da: Eliz hierarkiak baino askoz lehenagotik erlijiotasun herritarrek sortarazi ditu santutegiak.

Arantzazun ere horrela izan da: Andra Mariaren irudiaren inguruan eta beronen Ermitara ("leku sakratua", berriz ere) herria hasi zen biltzen, gero eta ugariago, gero eta borondate erabakiagoz, eta las-ter herriko eta eskualdeko Ermita guztien artean Arantzazukoak alkantzu berria izan zuen.

2. Santutegia, sorkari historiko

Hortaz, historiak egiten ditu Santutegiak, eta historiak desegin ditzake, agian desagertuta gero berriro eraikiak izateko. Esaterako, IV-V. mendeetako San Menas-en Santutegi handia (Ejipto), Ekialde Hurbilean halako erakarmen zabala izan zuena, XII.ean etorri zen behera, azkenik guztiz ezabatzeraino, eta 1960.etan jaso da ostera

Arantzazun, 1834ko sute handiaren ostean, ez zirudien Santutegia berriro zutik jartzetik ere egongo zenik. Egotez, eztabaida larri bat ere egon zen Bidaurretan errefuxiatutako fraideen artean, ea ez ote zen, alegia, hobe Irudi eta guzti bertan geratzea galdetzen zutenen itauna tarteko zelarik. Zalantza horiek gaindituz, zenbaiten ekimenez eta herritarren borondatez erabaki zen Santutegia atzera eraikitzea.

Orduan, deliberamendu jakin horrek segurtatu zuen Arantzazuren geroko historia.

Santutegiak, bestalde, ez dira alde edo aurpegi bakarrekoak, ez dira sorkari erlijiosoak bakarrik. Geografia batean lekututako tokiak dira, garai eta gizarte jakin batzuen altzoan hasi eta loratu izan dira, eta beren urteroko praxian nazioartekoak izatera heldu ez diren haietan, oso maiz bertako herriaren eta herritasunaren ezaugarri kulturalak ere badira. Batzuetan, gainera, "Zaindari" goitizena ere eman izan zaie Santu eta Andra Mariei, XIX-XX. mendeetan.

Montserrat Katalunian, Rocío Andaluzian, Guadalupe Mexikon edo Copacabana Bolivian beste balio kultural horrekin ere ageri zaizkigu. Arantzazu, noski, ez da honetan ere salbuespena.

Horregatik, gizarteko gorabehera sozio-politikoek eta kulturek zerikusi hurbila izan dezakete Santutegiekin. Batzuetan, kanpotik ezarrita etorriko zaizkie aldarte on edo gaiztoak (ez da aiantzi behar gobernariaren erabakiz erre zela azkenekoz Arantzazu); bestetan, Santutegiak berak sustatuko du inguruan -fede-bizipenez bezala ekimen sozio-kulturalen bidez- bere biziberritzea eta goraldia, premia- zko lagun-

tzak ere bilatuz. Honelako bi une behintzat baditugu XX. mendeko Arantzazun: Aita E. Mz. de Zuazorena, Gipuzkoako Zaindaritza lortu zenekoa, eta Aita Pablo Leteren kasua, eliza berria eraikitzeko abian jarritako ekimena.

Arantzazuren inguruan mota ezberdinetako indarrak bildu dira. Inguru hurbiletik oñatiarrak, Leintz bailarakoak, goierritarrak, arabar Lautadakoak bildu ziren jatorrizko ermita eta elizatzooaren ingurura; zerbait geroago, haragoko giputzak, bizkaitarrak, nafarrak, eta Iparraldekoak ere... Herriherriko jendeak ziren horiek, banaka zetozenak edo talde eta elkarteetan eratuta.

Laster, elizgizonak, herri eta herrialdeetako agintariak agertu ziren, gizarteko klase jasoak, jakitunak, aitor-sembleak, zaldunak, gotzainak, dirudunak eta egunen bateko santuak ere. Lagun leinargiak, alegia. Hobekuntza material handietan eskumen handia izan dute guztiok. Inoiz, baita Fraidearteari zegozkienetan ere: gogora Alexander VI.a Aita Santua (1501) edo Cánovas del Castillo politikaria (1878).

Baina Santutegiaren iraunpen-oinarria beti izan da herri-herritarren jaiera eta sinesmen-indarra, eta horrek ekarri izan duen atxikimendu sozial zabala. Gaur egun, gizarte sekularizatuan ere, mota guztietako bisitariena ganorazko datua da (historian beti izan den bezala).

Gure herriko beste eliza-ermitatan jazo ez den legez, edo gainerako Santutegi txikiagoetan neurri apalagoan egokitu denaren alderantziz, Arantzazuko hau bere erakarmen-indarrean goitik ibili bada, ez da hori ausaz eta zio jakin batzuk gabe suertatu. Arrazoi hauen artean dago aurtengo Mendeurrenak ospatzen duena, hain zuzen: Fraidearte baten presentzia iraunkorra.

3. "Arantzazuko fraideak"

Arantzazuko Ermitak laster ezagutu zituen bere zaintzaileak, Ermita ondoan bizi zirenak eta zainketa horrexetarako hara bilduak. Hau beti izan da eliza edo ermita bat Santutegi bihurtu ahal izateko baldintza ona, ez askia baina bai komenigarria. Joana Arriarangoren inguruko serorak izan ziren lehen zaintzaileak. Emakumezkoak, beraz.

Andre hark, ordea, gizonezko Fraidearte ere nahi zuen Arantzazun, eta bere seme mesedetarrari dei egin zion horretarako, Burtzeñatik etor zedin. Lehenengo hartan, Arantzazun fraide Ordena ezberdinak egon ziren 1493-1514.etan: mesedetarrak (1493-1498), fraide hirugarrendar frantziskotarrak (1498-c.1500), obserbantziko fraide frantziskotarrak (a. 1501-1509), jeronimotarrak (1509-1510), domingotarrak (1511-1514) eta azkenik frantziskotarrak behin-betiko (1514).

Badirudi, ba, Joana Andreak beso luzea zuela, edo eta eliz erakundeok interes bizia zutela Arantzazun leku-hartzeko. Ez zen seinale txarra.

Santutegien historian batzuk erlijiosoen eskuetan egon dira, eta fraide edo moja-erakunde horien eragina nabaria gertatu da haien bilakaera historikoan. Horrelakoak izan dira, adibidez, Ordenaren bera-

ren jatorrizko historiari lotutako Santutegiak: frantziskotarrek holako oso ezagun batzuk badituzte Italian (Asis, Alverna, Padova, etab.), Frantzian (Brive-la-Gaillarde), etab.

Jaiera orokorreko hainbat Santutegi ere Institutu erlijiosoen esku egon izan dira: Andre Mariarenak edo Santuren batenak, esateko. Urruneko adibide historiko handietara joan gabe, ez dago Euskal Herriko kasuak gogoratu besterik: Ordenaren historiakoak dira Loiola eta Xabier (josulagunak), eta Andre Mariarenak Estibalitz (beneditarrak) edo Angosto (pasiotarrak). Bestalde, ezagutzekoa da Pariseko hiriaren bihotz-bihotzean nazioarteko Santutegi hiritar-herritarra, bizirik gaur egun ere, emakumezko Lagunarte baten eskuetan dagoena: Du Bac karrikako santutegi-kapera (Karitateko Alaben Medaila Miraritsuarena). Fenomeno erlijioso eta sozio-antropologiko aztergarria da.

Froeschlé-Chopard-ek idatzi duenaren arabera, "mendeei gaina hartu dieten Santutegiak Ordena erlijiosoek zaindu dituzte, artatu eta sustatu", eta honelakoetan baita jaiera zaindu eta gidatu, otoitza eta errituala arautu eta, sarritan, teologia eta izpiritualitate jakin bat txertatu ere, herri-erlijiotasunaren jatorrizko izaeran.

Nabaria da hori Arantzazuko historian ere. Erromesaren otoitza, bidean eta elizan bertan, badi-rudi oso frantziskotarra zela XVI-XVIII. mendeetan, Lizarraldeak deskribatzen digunez (Nekaldia, Sortzez Garbia, etab.). Zalantzarik gabe esan daiteke, frantziskotarrek guztiz beretu dutela Arantzazu, eta, historia horren indarrez, herritarrek ez luketela gaur egun erraz begitanduko Santutegia "Arantzazuko fraiderik" gabe.

Kontzilio-ondoan azken hogeita hamar urtetan burututako Liturgi lana, Santutegiko altxorrik oparoenetakoa da, eta aro berrirako harrobi eta abiaburu ederra. Bestalde, Euskal Herriko frantziskotarrek XX. mendean beste Santutegitan ere egin dute lan: e. b., Boliviako Copacabanan (1954-1974) eta Kantabriako Liébanan (1956...).

Eskarmentu orokor hori ez da, noski, alferrikakoa gertatuko Arantzazuko Santutegian ere, herritarren fede eta kultur sentierarekin ongi elkar lotzea lortzen bada, Santutegi batek beti izan behar baitu herri-fede inkulturatuaren bizileku, eta gure kasuan Euskal Herriatik eta Euskal Herrian landatua.

4. Euskal Herrian

Liburu honetan, besteak beste, Arantzazu eta Euskal Herriaren arteko, edo alderantziz, Euskal Herriaren eta Santutegiaren arteko harremanen historia behin eta berriro agertuko da, ideia horren inguruan idazlan berezirik eskainiko ez den arren.

Luze jarduteko lain ematen du gaiak, XV. mendeko lehen ordu haietatik hasi eta gaurdaino. Labur beharrez, ordea, puntu motzetan adieraziko dut hau.

1. Lehenagoko eta XX. mendeko *erromes-bideen geografiak* erakusten digu Santutegiaren oihartzun eta erakarmentaren zabala, Bizkai eta Arabako lurretatik hasi, Gipuzkoa eta Nafarroa hartuz (Mendialdea bereziki), Iparraldea barne delarik.

2. *Arantzazuko erromantzeroa* lau probintzietan jaso da, herritarren ahotik, eta adierazpen oso antzekoak ditu gehienetan, nahiz eta euskalkiz aldatuz doan batetik bestera.

3. Santutegiaren hedapena ezagutzeko, *XX. mendean aintzat hartzekoa da*, e. b., liburu honetan aurkezten den hainbat gai: erromesaldi berrien antolaera, irrati eta telebista emanaldiak, fraide sermolari eta limosnarien ibilerak, kofraditarren jatorri geografikoa, argitaratutako aldizkarien herriz herriko zabalkuntza, gogo-jarduleen herriak, nonahitik ikastera etorritakoen sorlekuak, etab.

4. *Kultur lanak* zeresan handia izan du Santutegian eta bertatik ingururako; bi une historiko behinen aipatuko nituzke: XVIII. mendeko musika-lana, eta XX.ean arte ederretan eta euskalgintzan egindakoa.

Bere historiaren ildotik, erlijiotasunean, gure kultura anitz eta luditartuari entzunez, iraun eta barne-berritu egin behar du Arantzazuk, gizarte guztiz sekulartuan bere "misterioari" eutsi diezaion, gizakiaren sakoneko arazoen mesedetan, euskal gizon-emakumeei gogoeta libre, serio eta irekirako *topos* eta *pathos* bat eskainiz: lekua eta grina, alegia.

Guk ere xede horren zerbitzuan idatzi dugu liburu hau. Zuretzat.

Joseba Intxausti